

TAKE OVER

INÉS GARCÍA

TAKE OVER

Rekalde Aretoko erakusleihatik, Inés García areto nagusira lerratzen da. Bertan, eraldatze prozesuan dagoen espazio arkitektonikoarekin hitz egiten duten ikus-entzunezko instalazio batzuk erakusten ditu. Aretoaren *take over* edo aldi baterako jabetze horretan, artistak 2013 eta 2022 bitartean egindako maitasun, bizitza eta heriotza narrazioekin espazioa habitatzen du.

1. *Rio*, 2018

Super 8 HDra transferituta
1'30"

2. *Eurídice*, 2022


16mm 4Kra transferituta
4'23"-ko 3 pieza

**3. *ADIEU JE T'AIME*,
a film by Inés García, 2013**

80 diapositiba
9'30"

4. *Variaciones de Winterreise*, 2018

16mm 2Kra transferituta
7'58"



Bildu eta elkartu.

Eta pentsatzen dut: Nondik hasi? Zein da modua?

Antolatu al duzu inoiz argazki-album bat? Ordenagailuak kronologikoki egiten du, historiak bezala. Egunak eta datuak. Baina nola bateratzen ditu lotuta dauden esperientziak? Subjektua identifikatuz.

Pieza hau erakusketarako aukeratzeko erabakia atzotik hartuta dago, igandean hitz egin genuenean esandakoagatik. Baina ziur nago elkarrekin egon ondoren zerbait amestu zenuela eta erabaki duzula kolorea atzean jartzea, oparitu nizkizun loreengatik. Kolorea atzean geratzen da zeinuak aretoan distiratu dezan.

Winterreisen eta Eurídicen agertzen diren irudiak begiesten ditut, eta denboraren iragatea sentitzen dut nire gorputzean. Trantsizioa izan ahal izateko.

Iragateaz pentsatzen dut bilaketa-une gisa, baina... zeren bilaketa? Oinez ibiltzea, nork bere burua aurkitzeko edo onartzeko, modu berean ibiltzen al da orduan?

Bidea oinez ibiltzeko, baina bidea ibilbide gisa ere bai.

Paisaia zuri, hotz eta isiltasun handiz aurkeztzen denean: bizi-baldintza bat agertzen da. Lagunduta, hotza ez da modu berean sartzen gorputzean. Nahiz eta plazera handia izan hatzen, oinen zaurgarritasuna sentitzean eta ura aurpegian izoztuz. Zu, une hori filmatzen, kamerarekin.

Elkarrekin pentsatzen dugu bigun eta zaurgarriaz, bizirik irauteko kezka egokitzen den horretaz. Emandako baldintzetara egokitzen zara, bakarrik eustea gogorra da-eta, baina zure jarrera totemikoa bihurtzen da.

Egokitzea.

Zu eta ni, oso zu eta ni garenean,

eta azkenean beti gara zu eta ni,

nahiz eta saiatu egokitzen.

Onarpenaz hausnartzea, batek aske izan nahi duenean bere izatearekin.

Eguzkia kristaletatik sartzen zen eta itsasoa zure aurpegi argituan islatzen zen, zerrenda hau idatzi nuenean, autobusean hizketan ari ginela:

Plazera

Zaurgarritasuna
Sotila
Keinua

Isiltasun handia.

Idatz egidazu postal bat iritsi behar duzun lekura iristen zarenean abuztu honetan. Eta pentsatzen dut, ez dakit iritsi nintzen, baina postala bidali nizun, sekula iritsi ez zena. Uste dut zu han zeundela lurra ikusi nuenerako.

Fluxu-egoera batean egotea ez da bilatzen dugun zerbait, hor egoten gara elkarrekin gaudenean, ideien eta emozioen artean murgilduta, non erraietakoa gorpuzten den. Zeinu eta materialaren artean, gorputza den materiala, eta zeinua den gorputza.

Piezetan oihartzun gisa geratzen den iruditeria baten zatiak, helburua ez baita hori elkartzea, beste puntu batera iritea baizik. Bila eta bila ari zara. Abiaturua lekuz aldatzen da piezari izaten uzteko. Horrek ekoiztu izanaren esperientzia jasotzen du. Eskala eta materialak nagusitzen dira. Tamaina eta formagatik irradiatzen duten magnetismoaren ondorioz, erakusketa-espaziotik mugitzen zara erritmo jakin batean. Espazio bat sortzen da gorputzaren mugimenduaren eta pertzepzioaren artean.

Aretoko koreografiaren parte naizen bitartean, ukitu ahal ditudala sentitzen dut.

Ehunduratik lantzen duzu filma. 16 mm-rekin lan egiteak ematen dizu bereizgarri hori. Super 8a bezala. Erregistratzen dituzun materialtasunek hainbat esperientziatara eramaten dute ikuslea, horrek dagoeneko bizi izan dituenak. Gorputzean barrena doa.

Hezetasuna, beroa, brisa. Harria, ura, azala.

Bilatzen dituzun emozioak eta sentsazioak filmean gorpuzten dira. Uste dut afektuak eta horien ondorioak zeluloidean gorpuzten dituzula zure biziraupenerako.

Kamerarekin filmatzen imajinatzen zaitut berriz: arretaren, pisuaren eta zaintzaren arteko harremana.

Irati Inoriza
2023ko otsaila